

OMENEZ

# EUSKAL BASERRIAK: "ZORROTZE"<sub>n</sub> IRU LEKAIME TA ABADÉ BI

Gure Paulin Solozabal olerkariak sarritan izaten dau omen-olerkiak egiteko aukerea. Ba-dira, izan be, gure Euskalerrian omena artzeko gai diran gizonak, andrak, sendiak eta erriak.

Gaurko onetan, Morga'ko baserri bat artu dau, baserria eta bertan bizi dan sendia.

Olerkian gauzak aitatu baiño ez dira egiten, baiña arazoa ondo ulertzeko, jakingarri batzuk bear dira. Morga'n. Andra Mari'ko eleizatik urrean dago Zorrotze izena daroan etxea. Lenengo aapaldian zeaztuten dau tokia. Bigarreanean etxe orretan egin diran lanak eta bizi izan diran gizonak aitatzten dauz, irugarreanean asabak gogoratzen dira. Eta laugarren aapaldira sartuz, gaurko sinideak gogoratzen diranean, etxearen ateak zabaldu egin zirala gogoratzen dau, mundu zabalean zear joan zirala ango seme-alabak. Or ulertu bear da, sendi orretatik, idazpuruan aitatu dan lez, iru lekaimek eta abade bik urte dabela. Abade batek Kantabria'ko Hoznayo'n eta inguruetan egiten dau bere lana, bestea Bizkai'ko Fika'n da abade aspaldiko urteetan. Lekaimeak Bernardo'tarrak dira eta Santander'en dagoz euren lekaime zeregiña beteten. Beste anai bat Colombia'n bizi da eta etxean amaren ondorengo lez bizi izan dan arrebea, oraintsu joan jaku Aitaren etxera.

Argi ikusten da ba, sendi au mundura zabaldu dala, argi ikusten da Zorrotze baserrian lana egin dala, baiña batera munduaren argia izanez.

Olerki onen edertasunak billatzekotan, bi gogoratuko neukez nik, tokizeazketa egokiak alde batera itzita: Umeak, Euskalerriko seme-alabak, larrosa usaingarri lez eta gure baserri aintzagarriak, ortzian argi egiten daben izarren antzeko agertzen dira.

Bizkargipeko lurralde maite,  
dana tontorrez jantzia,  
ikuspegia oso ederra  
eguzkiak igurtzirik;  
zelai ta solo eta lubarri  
izerdiz, ondo, bustirik,  
aurrean dauka zeru ortzia  
gallurak besarkaturik.

Euskalerriko bizitz oiñarri  
solo landuak ugari,  
poza darie arto ta gari  
udabarri maitegarri;  
gure asaben bizi-bidea,  
beti, zentzunez ongarri,  
argi-bidea zabaltzen eben  
sendiaren omengarri.

Gure asaben gizontasunak  
eukan arpegi argia,  
aren sinismen eta oiturak  
ba eben indar bizia;

egunik egun, leialtasunez,  
egien lan ta otoia,  
zeru ta lurra alkaturikan...  
bizitza zoragarria!

Baratz orretan jaioten ziran  
larrosa usaingarriak,  
Euskalerriko seme-alaba  
kristau adorez jantziak;  
MORGA gaiñeko "ZORROTZE" etxek  
zabaldu zitun atiak,  
zoaze mundu zabalez zear  
seme-alaba maitiak.

Bizi ta gatza, lan eta neke  
alkaturik bekokian,  
ekin ta jarrai itzez ta otoiz  
argi zabaltzen lurrian;  
gure baserri aintzagarriak  
izarrak dira ortzian,  
gizadiari on egin nairik  
giza osotasunian.

PAULIN